

TARTALO. FANTASIAZKOAREN I. ASTEA ARTEETAN

COSPLAY PASARELA: PARTE-HARTZE OINARRIAK

1. Lekua eta ordutegia

Cosplay lehiaketa 2023ko azaroaren 12an, igandea, izango da Gasteizen, honako fase hauek jarraituz:

- 11:00: jantzien ikuskapena.
- 12:00: lehiaketa eta performanceak.
- 13:30: sari banaketa.

2. Kategoriak eta izen-ematea

- Aurretiko izen-emate epea 2023ko azaroaren 6ko goizeko 12ak arte egongo da irekita. Hala ere, betiere plaza kopurua bete ez bada, azken orduko izen-emateak egin ahal izango dira egunean bertan goizeko 10etatik 11k bitarte.
- Cosplayak komiki, manga, bideojoko, literatura, pelikula, joko eta serietako pertsonaiak izan daitezke. Tematika librea da, baina erreferentziako pertsonaia batean oinarrituta egon behar du beti.
- Pertsonaien *fanart*-ekin zein norberaren diseinu batekin parte hartu ahal da. **Diseinu original hoberenaren** sarirako hautatua izan daiteke.
- Izen-ematea **doan** da eta web orriko **inprimaki** baten bitartez egin behar da.
- Inprimakian bete beharreko datuak honako hauek dira:

-Izen-abizenak.

-Telefonoa.

-Emaila.

-Cosplayer-aren *nick* edo izena.

-Cosplay pertsonaia eta seriea.

-Erreferentziarako multimedia estekak (argazkiak, bideoak, etab.).

- Pasarelako parte-hartzea **indibiduala** da. Norbaitek taldean igo nahi balu eszenatokira, email bakar baten bidez eman beharko luke guztien izena (gehienez 5 pertsona).
- Pasarelan gehienez **20 pertsonak** hartu ahal izango dute parte. Horietatik, 7k cosplay lehiaketan parte-hartuko dute (hau da, performancearekin), eta besteek pasarelan (performance gabe).
- Cosplay lehiaketako plaza guztiak beteko ez balira, libre geratutakoak pasarelako parte-hartzaileekin beteko lirateke.

3. Multimedia materiala eta soinua

Pasarelan zehar parte-hartzaileen tematika errespetatuko duen **berezko hari musikal** bat egongo da. Ezin da inongo ikus-entzunezko materialik aurkeztu, **cosplay lehiaketan** performancea egin behar duten horienak **ez beste**.

4. Cosplay lehiaketa

Lehiaketak gehienez 7 partaide izango ditu. Horietatik 4 talde-performancera bideratuko dira, eta beste 3ak indibidualera.

Performance bakoitzak **gehienezko 3 minutuko** iraupena izango du partaide bakoitzeko. Audioa aldeztu aurretik bidali beharko da inprimakiarekin batera. Lehiaketaren orduan, audioa **pendrive** batean entregatuko da ikuskapenaren garaian, eta orduan jakinaraziko da bakoitzari esleitutako parte-hartze lekua.

5. Pasarela eta cosplay lehiaketaren arauak

1. Pasarelan parte-hartzeko ez da performancerik onartzen. Performancea aurkeztu nahi izanez gero, atrezzo eta beharrezko guztia norberak ekarri behar ditu, ezin izango da kanpoko laguntzarik jaso eta 20 segundu inguru izango ditu bakoitzak materiala eszenatokian jartzeko.
2. Arau orokor bezala, ez dira metalezko armak, suzko armak edo airsoft tresnarik onartzen.
3. Ez da eszenatokia zikinduko duen materialik onartzen.
4. Parte-hartzaileenganako errespetu falta bezala har daitezkeen performanceak ez dira onartzen.
5. Cosplay lehiaketan ez dago pantailarik, beraz euskarri posible bakarria audioa da.
6. Jantziek eskuz eginak izan beharko dute %80 batean gutxienez. Erositakoa %20 baino gutxiago dutenek soilik jaso ahal izango dute saria.

6. Sariak eta cosplayen kalifikazioa

Cosplayan, performancean eta jantzigintzan aditu diren pertsonen osatutako epaimahai batek ebazten du kalifikazioa. Beraz, ondorengo baloratuko da positiboki:

- **Cosplaya, originaltasuna, zailtasuna, emaitzak eta pertsonaiarekiko fidelitasuna.**

Aldi berean, jantzia ez dela beste inon saritua izan baloratuko da. Berdinketa baten kasuan, jantzia espreski lehiaketa honetarako egina izan den hartuko da kontuan.

Jantziak lehiaketaren aurretik errebisatuko dira, 11:00an (lekua erabakitzeke). Lehiaketako epai-mahaikideek ikuskatuko dituzte eta **2 minutuko** denbora edukiko du **gehienez partaide** bakoitzak, **2 minutu eta erdi taldeen kasuan**, jantzia eta osagarriak (baleude) nola egin diren azaltzeko.

Ongintzako cosplay lehiaketa bat denez, sariak **diploma** moduan emango dira. Honako hauek dira **sariak**:

- Egindako cosplay onena.

- Armadura edo osagarridun cosplay onena.
- Diseinu propio onena.
- Ohorezko aipamenak (epaimahaiaren irizpideen arabekoak).

Epaimahaiak araudi honetan agertzen ez den edozein ekintza aurrera eramateko eskubidea gordetzen du, betiere pasarela edo performancea hobetzeko asmoarekin. Sari-banaketaren kasuan bezala, **ezin izango da erreklamatu**.